

GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILU SEKTORIALAREN ARAUDIA

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2015/04/10/e1503152.htm>

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

Arrazoen azalpena.

I. titulua: Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Araudiaren xedea.
2. artikulua. Kontseiluaren izaera.
3. artikulua. Kontseiluaren helburuak.
4. artikulua. Kontseiluaren funtzioak.

II. titulua: Kontseiluaren osaera eta aukeraketa.

- I. kapitulua: Osaera eta kidetza.
5. artikulua. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Kontseiluaren osaera.
6. artikulua. Udalean dauden udal taldeetako ordezkarietari dagokiona.
7. artikulua. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren arloko herritarren elkarten ordezkarietari dagokiona.
8. artikulua. Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren 27. Artikuluan zehazten diren Pertsona Fisikoei dagokiona.
9. artikulua. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren arloan gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboei dagokiona, Kontseiluaren Bilkuran adostuak.
10. artikulua. Kontseiluko kide izaeraren galera.

II. kapitulua: Osaera bilkura.

11. artikulua. Kontseiluaren osaera.

III. titulua: Antolaketa.

12. artikulua. Kontseiluko Organoak.
- I. kapitulua: Lehendakaritza eta lehendakariordetza.
13. artikulua. Lehendakaritza.
14. artikulua. Lehendakariordetza.
- II. kapitulua: Kontseiluko bilkuraren antolaketa.
1. sekzioa: Osaera eta ahalmenak.
15. artikulua. Bilkuraren osaera.
16. artikulua. Bilkuraren ahalmenak.
2. sekzioa: Funtzionamendua.
17. artikulua. Bilkura motak.
18. artikulua. Bilkuraren gai-zerrenda eta deialdia.
19. artikulua. Bilkuren izaera publikoa.
3. sekzioa: Bilkuren garapena.

- 20. artikulua. Quorum-ak.
 - 21. artikulua. Gai zerrendan jasota ez dauden gaiak.
 - 22. artikulua. Bozkatzeko prozedura.
 - 23. artikulua. Aktak.
 - 4. sekzioa: Bilkurako kideen eskubide eta betebeharrak.
 - 24. artikulua. Eskubide eta betebeharrak.
 - III. kapitulua: Idazkaritza.
 - 25. artikulua. Idazkaritza.
 - IV. kapitulua: Batzorde iraunkorra.
 - 26. artikulua. Batzorde Iraunkorreko osaera eta kidetza.
 - 27. artikulua. Funtzioak.
 - 28. artikulua. Funtzionamendua.
 - V. kapitulua: Lan taldeak.
 - 29. artikulua. Lan-Taldeei dagokiena.
 - VI. kapitulua: Ebaluazioa.
 - 30. artikulua. Ebaluazioa.
- Lehen xedapen gehigarria.
- Indargabetzeko xedapen bakarra.
- Azken xedapena.

GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUAREN ARAUDIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren Arrazoiaren Azalpenean esaten den bezala, Udalak bere jardunbide egokirako erakundeek interes orokorraren alde erabakiak hartzeko eta etengabeko jarduteko gaitasuna eduki behar du, beti ere herritarren eskakizunak eta egoerak kontuan hartuta. Administrazioek beharrezkoa dute beren eskumeneko gaietan herritarrek duten iritzia jakitea, gizarte-eskakizunei erantzun bat ematen ahalegintzeko. Eta halaber, beren erabaki eta jardueren erantzukizuna hartu behar dute haien aurrean.

Toki-erakundeei buruzko legediak eta baita Donostiako Udalaren Arautegi Organikoak eta Hiritarren Partaidetzako Araudiak ere, udal politikaren arlo jakinetan aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamen parte-hartze organo iraunkorrak izango diren Kontseilu Sektorialak sortzeko aukera aurreikusten dute.

Herritarren partaidetza pertsona eta kolektibitatea, politika publikoekin harremanetan jartzen dituen egitasmo multzoa da, horrela erabakiak hartzeko prozesua eraginkorragoa eginez. Kontseiluak esparru zabal honetan elkarlanerako gune izan daitezke.

Herri-partaidetza inklusio, aniztasun, eraginkortasun eta gertutasun printzipioetan oinarritzen da eta baldintza hauetan garatu behar da herritarren partaidetza:

- Informazioaren kudeaketa demokratikoa sustatuz.
- Elkarrizketa bermatuz.
- Prozesuan lan eginez.
- Planifikazioz.
- Botere harreman horizontalak garatuz.
- Gizarte-harremanak sustatuz.
- Sinesgarritasuna eta Eraginkortasuna lortuz.
- Banakakoari, bizilagunari, elkarte bateko kideari, «aditu» kategoria errekonozituz.

Printzipio eta baldintza guzti horiek laburtzeko kontzepturik egokiena lan kolektiboa izango litzateke, eta abiapuntua hau izanda, partaidetzaren eremu zabal honetan herritarren papera anitza izan daiteke: gobernuaren ekimenaren jarraipena edo kontrola egitetik, zuzeneko erabakiak hartzera, partaidetza prozesu sortzailetatik pasatuz, non erabaki politikoei ahal den iritzi ekarpen anitzenak egitea bilatzen den.

Udal Kontseilu Sektorialak ezaugarri, helburu eta eginkizun zehatzak dituzten partaidetza organoak dira.

Partaidetzaren esparru zabal honetan Kontseiluak Gobernu Irekiaren planteamenduaren barne kokatu behar dira. Funtsezkoa da hiriaren eguneroko eraikuntzan lan egiten duten eragileek (Udal Gobernu, plenoa osatzen duten gainontzeko udal taldeetako ordezkariak, antolatutako herritarrak, beste erakundeak, eragile publiko eta pribatuak, eta teknikaria) lan konpartiturako esparru sektorialak partekatzea, beti ere arlo tematiko bakoitzak eskatzen duen moduan.

Kontseiluak udal instituzio eta herritar eragileen arteko elkarlana sustatzeko gune bezala planteatzen dira: elkar ezagutza eta aitortza errazteko guneak, elkarteek udal informazioa zuzenean eskuratzeko lekua, udal erakundearen funtzionamendua ezagutzeko aukera bihurtu eta elkarleen arteko harremanak garatzeko esparruak izan daitezela.

Beste neurrien artean, Herritar eragileak boteretzeko Kontseiluetako kudeaketa organoetan herritar eragileak egotea bermatzen da.

Kontseilu guztiak Udal organo Aholkulariak dira, eta ondorioz hiriko partaidetzari buruzko ikuspegi orokorraren eta gaikako helburu eta tematika bakoitzari dagokion helburu eta funtzio espezifikoaren arteko lotura izan behar dute beti kontuan.

Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Kontseilua sektorez sektoreko partaidetza organoa da, eta Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren arloko printzipioak eta jarduerak bultzatzen ditu udalerrian, giza garapen sostengagarriaren ikuspegitik.

Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Kontseiluaren aurrekariak 1996. urtean kokatu behar dira.

Dena dela, Nondik Nora partaidetza prozesua (2003-2005) gauzatu eta gero erabaki zen Kontseilua berrabiatzea lehentasuntzat hartzea, eta araudi berri bat, denon artean kontrastatua eta adostua, ezartzea. Partaidetza prozesu horretan, garai hartan lankidetzan aritzen ziren Donostiako erakunde guztiek esku hartu zuten, helburu honekin: Udalaren lankidetzako politika hobetzeko lehentasunezko lan ildoak denon artean ezartzea.

Azkenik, formalki berrabiatu zen eta 2008an funtzionatzen hasi zen Lankidetzako eta Garapenerako Hezkuntzako Udal Aholku Kontseiluaren arautegian oinarrituta, 2008ko otsailak 26an onartua izan zena eta urte bereko apirilaren 2an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoa.

Gai honetan esku hartzen duten eragile politiko eta sozialen ustetan, Udalak lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan egiten duen lanak Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak aldatzeko prozesu egiturazko bat bultzatu behar du, planeta honetako emakume eta gizonentzat baliagarri den giza garapen sostengagarriaren ikuspuntutik. Baina hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da herritarrek, bai Iparraldekoek bai Hegoaldekoek, kontzienteki parte hartzea, eta gero eta antolatuago eta sendoago izatea eragile aktibo gisa. Gizarteak eraldaketa sozialaren protagonista izan behar du. Planteamentu horrek beharrezko egiten du, besteak beste, mekanismoak ezartzea gizarte zibilari aukera emateko lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko udal politiketan parte har dezan. Asmo horrekin sortu zen udal kontseilu hau, eta asmo horri eusten dio bere funtzionamenduan.

Kontseilua Udalak duen erreferentzi esparrua da, helburu duena, besteak beste, herritarrek parte hartzea lankidetzako arloko udal politikak gauzatzean. Haren bidez, politika horiek kudeatzeko modua aditzera ematen da, haien motorea den oinarri ideologikoaz gogoeta egiten, jarduteko ereduak proposatzen eta segimendua ere egiten da.

2013-2014 urteen artean Donostiako udalean aholku kontseilu guztiei buruzko azterketa eta gogoeta egin zen, eta kontseilu batzuetako araudien berrikuntza eta bateratze proposamena egin zen, helburu hauekin: herritarren partaidetza handitzea, organo iraunkor hauen funtzionamendua sistematizatzea eta elkarren arteko koherentzia sakontzea. Horren ondorioetako bat da Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Kontseiluaren araudi hau.

Aldaketen helburua Kontseiluaren jarduteko gaitasuna hobetzean datza, Herritarren Partaidetzari buruzko Arau Organikoarekin bat egiten duten osaera eta funtzionamendu arloetan moldaketa ninimoak eginez.

Aldaketek gaur egun indarrean dagoen kontseiluaren arautegiko artikulua askori eragiten dietenez, araudiaren argitasunaren alde eta hainbat herritar elkarte zein biztanlek bertara egokitzeko erraztasunak emateko,

aurreko testuaren ordezkua izango den araudi berri eta osoa aurkeztea egokitzen jo da, eta araudi berria indarrean sartzen denetik aurrera orain arteko araudia indargabetua geratuko litzateke.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Araudiaren xedea.

Araudi honen xedea Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Kontseilu Sektorialaren arautzea da.

2. artikulua. Izaera.

1. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Kontseilua aholkuak, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak bideratzeko sektoreko parte-hartze kide anitzeko organo iraunkorra da, eta bere helburua da lankidetzako eta garapenerako hezkuntzarako udal politiken segimendua eta ebaluazioa egitea, giza garapen sostengagarriaren ikuspuntutik.

2. Kontseiluari legitimitatea eta lidergoa aitortzen zaio garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzako udal politiken inguruko asmoak adierazi eta proposamenak helarazteko organo gisara. Era berean, udal-erakundearen eskumenen barneko jardueraren edo ildo orokorrak zuzentzeko baliagarri izan daitezkeen irizpide eta gomendioak ere igor ditzake.

3. Kontseiluak aholku-emaile izaera du, hau da, iritzi eta proposamenak emateko gaitasuna du, eta hauek loteleak ez izan arren, Udal ekimenean eragina izan dezaten baliabideak zehaztuko dira.

4. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Kontseilua arautuko dute, honako araudi honek, Donostiako Udaletxeko Herritarren Partaidetzarako arau organikoak eta aplikatu daitezkeen gainerako beste xedapenek.

3. artikulua. Kontseiluaren helburuak.

Udal honetako Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Kontseiluaren helburuak honakoak dira:

1. Kontseilu sektorial guztientzako orokorrak edo komunak direnak, baina beti ere Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Kontseiluaren tematikarekin harremana dutenak, hau da:

- a. Aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamen organo iraunkorra izatea.
- b. Udal planifikazioan parte hartzeko lehentasunak eta irizpideak proposatzeko gune izatea.
- c. Udal jardueraren gaineko jarraipena egitea.
- d. Gobernuaren eta Kontseiluko kideen ekimen zehatzak aurkezteko foro bilakatzea.
- e. Udal jardueran gizarte mugimenduen eta herritarren parte-hartze aktiboa eta iraunkorra bultzatzea, eragile ezberdinen arteko elkar ezagutza eta elkar aitortzea sustatzea eta elkarriketa-espazio baliagarri bihurtzea, elkarlan sareak sortu eta koordinazioan sakontzeko aukera emango duena.
- f. Beste udal kontseiluekin osotasun baten parte izatea.

2. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Kontseiluaren berriazko helburua:

a. Udalerrian Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren arloko printzipioak eta jarduerak bultzatzea, «giza garapen sostengagarria»ren ikuspegitik.

Ikuspegi horren arabera, garapena pertsonen hautabideak, gaitasunak eta aukerak handitzeko balio duen prozesu da. Helburua gizartearen eraldatzea eta egiturazko pobrezia eta berdintasunik eza erotik kentzen laguntzea da, mundu bidezkoago bat eraikitzea. Horretarako, Hegoan, garapen endogenorako prozesu koherente eta kalitatezko lagun egiten diegu, eta, gure hirian, gizartearen eraldatzeko ekimenak sustatzen ditugu, honakoak izanik oinarri: giza eskubide guztiak, emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasuna, ingurumen sostengagarritasuna, indarkeriarik eza eta nazioarteko elkartasuna.

4. artikulua. Kontseiluaren funtzioak.

1. Kontseilu sektorial guztientzako orokorrak edo komunak direnak, baina beti ere Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Kontseiluaren tematikarekin harremana dutenak, hau da:

- a. Udal Gobernuaren Legislatura hasierako asmoak aztertzea, irizpide eta lehentasunei buruzko proposamenak eginez.
- b. Kontseiluaren tematikarekin harremana duen aurrekontu proiektua aztertzea: irizpideak, ekintzak, lehentasunak.

c. Udalaren sektorekako egitasmo arauemaile eta planifikazioari buruzko informazioa ezagutzeko gune izango dira, eta hala dagokionean Kontseiluek parte hartuko dute arloarekin zerikusia duten Plan, programa eta Ordenantzen zein Araudien prestaketan eta berrikusketan.

d. Kontseiluaren lan arloarekin harremana duten jarduerak proposatzea.

e. Arloarekin harremana duen gairen bat sakonago aztertzeke beharra ikusten bada, Kontseiluarekin lotuta egongo diren lan-taldeak eratzea erabakitzea.

f. Kontseiluaren baitatik ezarritako beste edozein eginkizun, «Izaera» atalean zehaztutako mugapean izanez gero eta helburuak lortzeko baliagarriak badira.

2. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseiluaren berariazkoak:

a. Lau urtean behin Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako plan estrategiko bat sustatzea.

b. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzarako udal proiektu, programa eta neurriak elaboratzerakoan aholku ematea.

c. Deialdi publikoen oinarrietarako nahiz proiektuen hautaketarako irizpideak ezartzerakoan laguntzea eta aholku ematea.

d. Eskatzen badiote, txostena egingo du, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza funtsak (udal funtsak) nora bideratzeari buruzko erabaki proposamena dagokion organori bidali baino lehen.

e. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren inguruko gaietan udal jardunbideen urteko ebaluazioa egitea, dagokion memorian txertaturik.

f. Gainerako udal politiken koherentzia sustatzea Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren politikaren jarrerarekiko, Beste Udal Kontseiluekin harremanak ezarriz.

g. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzako dinamikak sustatzea Donostiako hirian, Kontseiluaren izaerari darizkion printzipioen arabera betiere.

h. Euskadiko eta Estatuko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza legeak eta gaia dagokien nazioarteko Organismoetatik eratorritako gomendioak egoki betetzeko neurriak proposatzea.

II. TITULUA

KONTSEILUAREN OSAERA ETA AUKERAKETA

I. KAPITULUA. OSAERA ETA KIDETZA

5. artikulua. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseiluaren osaera.

1. Kontseiluko Lehendakaritza kargua Donostiako Alkateak izango du eta funtzio hori Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren arloan eskumena duen zinegotziaren esku utzi ahal izango du.

2. Lehendakariordetza: Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren arloko herritarren elkarte baten ordezkari den Kontseiluko kide batek hartuko du.

3. Bokalak:

a. Udal Ordezkaritza instituzionala:

Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren arloan eskumena duen zinegotziak. Udalean dauden udal talde bakoitzeko ordezkari izango den **pertsona** banak.

* 5. artikuluko 3. atala aldatu da, Udabatzak 2015eko abenduaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2016/04/06/e1602152.htm>

b. Herritarren elkarteetako ordezkariak:

Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren arloarekin harremana duten helburu sozial, xede edo jarduerak dituzten Herritarren elkarteetako ordezkari banak, baldin eta Donostiako Udaleko Herritarren Elkartearen Erregistroan izena eman duten eta Kontseilu honetan parte hartzeko beraien borondatea adierazi duten, baita Euskadiko GGKEeen Koordinakundeko Gipuzkoako Ordezkaritzaren ordezkari bat ere.

c. Gehienez ere, 4 pertsona fisiko, zotz eginda aukeratuak Herritarren Partaidetzari buruzko Arau Organikoaren 27. artikuluan aipaturiko emakume interesdunen zerrendetatik. Emakumeek eta gizonek ordezkari parekidea izateko irizpideari jarraituz, bi kide emakumeak izango dira, eta beste bi gizonak.

d. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Kontseilua osatuko dute ere arlo honetan gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboek, Kontseilu Sektorialeko Bilkurak hala erabakita eta Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren 33.2 Artikuluak dioenari jarraiki.

Alderdi politikoen ordezkari izango da bikoiztu, udal korporazioko kide izateagatik hauek jada ordezkari bat badute.

4. Kontseiluaren Idazkaritza.

6. artikulua. Udalean dauden udal taldeetako ordezkari dagokiena.

1. Udalean dauden udal taldeak proposatuko dituzte beraien ordezkari izango diren bokalak (titularrak eta ordezkariak).

2. Agintaldi osoan zehar garatu ahal izango dute beraien ordezkariak.

7. artikulua. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza arloko Herritarren Elkartearen ordezkari dagokiena.

Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza arloarekin harremana duten helburu sozial, xede edo jarduerak dituzten Herritarren Elkarteak (5.3.b. artikuluan jasotakoak) eta Donostiako Udaleko Herritarren Elkartearen Erregistroan horrela identifikatuta daudenak, Kontseiluan parte hartzeko eskaera egingo dute idatziz, dokumentazio honekin batera:

— Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza Kontseiluan parte hartzeko elkartearen akordioa, non elkartearen ordezkariak eta bere ordezkariak izendatzen diren.

Erakunde bakoitzak ahalegina egin beharko du bere ordezkariak bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten.

Kontseiluaren Idazkaritzak lehen aipaturiko baldintzak betetzen ote diren aztertuko du eta txostena aurkeztuko du Batzorde Iraunkorrean eta hau ez balego Lehendakariari aurkeztuko dio.

8. artikulua. Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren 27. artikuluan zehazten diren Pertsona Fisikoei dagokiena.

Herri Partaidetzaren eskuduntza duen udal arloak Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza Kontseiluko Idazkaritzari jakinaraziko dio Garapenerako Lankidetzak arloko interesatuen zerrendetan ageri direnen artean zozketa egin eta gero Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza Kontseiluan bokal izateko aukeraturiko pertsona fisikoen izena Gizon eta emakumeen kopuru parekideak izango da.

Sistema honen bidez hautaturiko pertsonak ez dira izango 4 baino gehiago. Genero bateko behar beste interesdun ez badago batzordekide izateko, genero horri dagozkion postuak bete gabe geldituko dira.

Gehienez 4 urtetan zehar izango dira Kontseiluko bokal.

9. artikulua. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzaren arloan gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboak dagokiena, Kontseiluaren Bilkuran adostuak.

Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzaren arloan gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboek Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza Kontseiluan parte hartzeko eskaera aurkeztu beharko dute idatziz, dokumentazio honekin batera.

1) Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzaren arloan izan duen ibilbidea jasotzen duen Memoria, garatzen dituen ekintzak araudi honetako Arrazoiaren Azalpena eta Helburuen ataletan zehazten diren Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Kontseiluaren xedeekin bat egiten dutela egiaztatzen duena. Hala izan bada, Donostiako Udalarekin elkarlanean edo haren partaidetzaz burututako jardunbideak adierazi beharko ditu memoriak.

2) Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza Kontseiluan parte hartzeko akordioa, non ordezkariak eta bere ordezkariak izendatzen diren.

Erakunde bakoitzak ahalegina egin beharko du bere ordezkariak bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten.

Kontseiluaren Idazkaritzak lehen aipatutako baldintzak betetzen ote diren aztertuko du eta txostena aurkeztuko du Batzorde Iraunkorrear, eta egongo ez balitz Lehendakaritzan, eta honek Kontseiluaren hurrengo Bilkuran akordio proposamena aurkeztuko du, bi aukera hauetako batekin:

- a. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseiluko kide izatearen onarpena.
- b. Ez onartzea Kontseiluko kide izateko eskaera, arrazoitua izan beharko duena.

Bilkurak akordio proposamena onartzen duen edo ez erabakiko du gehiengo soilez.

10. artikulua. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseiluko bokal izatearen galera.

1. Kontseiluko kide izateari ondorengo arrazoiengatik utziko zaio:
 - a) Erakundeak edo pertsona fisikoak borondatez uko egitea.
 - b) Ordezkatzen duen elkarte edo erakundea desegitea.
 - c) Aholku Kontseiluaren bokal izateko eskatutako baldintzetako baten galera.
 - d) Segidako bi bilkuretara edo segidakoak ez diren hiruetara zuritu gabe huts egiten dutenean.
 - e) Kontseiluaren Araudia eta barne-araudia edo bere gobernu organoen ebazpenak behin eta berriz ez betetzea edo Kontseiluaren funtzionamenduari kalte larria egitea.
 - f) Aholku Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak azaltzea edo aktibitate nahiz adierazpideak egitea.
2. Aholku Kontseiluaren kide izateari uzteko erabakia Bilkuran hartuko da, Batzorde Iraunkorren proposamenez, eta d) kasua ematen bada kide izateari uzteko prozedura hasiko du.

Horretarako idatziz eskatuko zaie Kontseilu Sektorial honetan eta bere jardueretan parte hartzen jarraitzeko borondatea adieraztea. Gainerakoan, baja emango zaie.

e) edo f) kasuetan Bilkurako erabateko gehiengoak onartu beharko du kargugabetzea.

3. Arestian aipatutako arrazoiaren bat oinarri hartuta Osoko Bilkuratik kanpo utzi diren pertsona, elkarte edo kolektiboek ezin izango dute berriro Kontseiluan parte hartzeko eskabiderik egin, kanporatzea gauzatu eta urtebete igaro arte.

II. KAPITULUA. OSAERA BILKURA

11. artikulua. Kontseiluaren osaera.

Arautegi honen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta hiru hilabeteko epearen barruan Kontseilua eratzeko osoko bilkura egingo da.

Kontseilua behar bezala eratzeko, bertan izan beharko dute Lehendakaritzaren eta Idazkaritzaren titularrak eta ondoko kontseilu kide hauen erdiak:

Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseiluko ardura duen zinegotzia. **Udalean dauden udal talde bakoitza ordezkatzen duen pertsona bat.**

* 11. artikuluko 3. atala aldatu da, Udalbatzak 2015eko abenduaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2016/04/06/e1602152.htm>

Ordezkaritza bana Donostiako Udalaren elkartearen erroldan egon, eta beren gizarte xedea, helburua edo jarduerak Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzarekin lotura izanik, kontseilu honetan parte hartzeko borondatea agertu duen herritar erakunde bakoitzeko.

Lau pertsona, gehienez, Herritarren Parte Hartzeari buruzko Arau Organikoaren 27. artikuluan aipatzen den pertsona interesatuen zerrendakoen artean zozketa bidez aukeratuak.

Lehen bilkura honetako gai zerrendan sartu beharko da kontseiluaren lehendakariaren proposamena kontseiluan sartzeko edo ez sartzeko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren ikuspegitik interesgarriak diren erakundearen ordezkaritza edo arlo horri dagokionez garrantzi handikoak diren pertsona edo kolektiboak, Herritarren Parte Hartzeari buruzko Arau Organikoaren 33. 2 artikuluari jarraituz, araudi honetako 9. artikuluan ezarri den bezala; nola nahi ere, ez da eragozpenik izango bilkura horren ondoren kide berriak Kontseiluan sartzeko.

Kontseilua, normalean, legealdiaren hasieran berrituko da, udalbatza osatzen denetik hiru hilabete igaro baino lehen, araudi honetako 5.1, 5.3.a eta 5.3.c artikuluetan adierazitako kideei dagokienez.

III. TITULUA

ANTOLAKETA

12. artikulua. Kontseiluko Organoak.

Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Kontseiluak honako organo hauek izango ditu:

- a) Lehendakaritza.
- b) Lehendakariordetza.
- c) Kontseiluaren Bilkura.
- d) Batzorde Iraunkorra.
- e) Lan-taldeak.
- f) Idazkaritza.

I. KAPITULUA. LEHENDAKARITZA ETA LEHENDAKARIORDETZA

13. artikulua. Lehendakaritza.

1. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Kontseiluko Lehendakaritza kargua Donostiako Alkateak izango du eta funtzio hori Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza arloan eskumena duen zinegotziaren esku utzi ahal izango du.

2. Lehendakariordearen laguntzaz, Kontseilua zuzenduko du eta bere gain hartuko du honen ordezkaritza.

3. Lehendakaritzari dagokio bilkurak deitzea, eguneko gai zerrenda ezartzea (beti ere Batzorde Iraunkorraren proposamenak kontuan hartuta), bilkurak zuzentzea, proposamenak Udalaren kudeaketa eta gobernu organoei helaraztea eta organo kolegiatu baten funtzionamenduari berez dagozkion gainerako eginkizunak, hala nola kalitatezko bozka erabiltzea berdinketa kasuetan, saioak moderatu eta eztabaidak bideratzea eta akordioak betearaztea.

Lehendakaritzari dagokio ere:

- a. Batzorde Iraunkorrari entzun ondoren, araudi hau interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- b. Herritarren Parte-hartzea bermatzea.
- c. Kontseiluaren eta Udal Gobernu eta Kudeaketa Organoen arteko harremana koordinatzea, hala nola Udaleko Kontseilu ezberdinen arteko koordinazioa sustatu, informazioa trukatu, beharrezkoa denean, neurri eta ekintza bateratuak proposatzeko.
- d. Kontseiluaren helburuak betetzen direla eta bertako jarduerak indarrean dagoen araudiaren arabekoak direla egiaztatzea.
- e. Kontseiluaren Bilkuraren edo Batzorde Iraunkorraren proposamenez, Zinegotzi Ordezkarri, teknikari, erakunde, entitate edo pertsonak gonbidatzea, aztertu beharreko gairen batean adituak direlako edo beraien iritziak jaso nahi direlako.
- f. Gai-Zerrendan landutako gaien inguruko beharrezko informazio eta dokumentazioa osagarria eskatzea eta Kontseiluaren jardunbide egokia bermatzearen, beharrezko eta apropos deritzon udaleko edo kanpoko laguntza tekniko eskatzea.

Udal Zerbitzu ezberdinek, informazio eskaerei gehienez ere 30 eguneko epean erantzun beharko diete.

- g. Organoaren akordioei buruzko aktak eta ziurtagiriak bisatzea.
- h. Kontseiluaren bozeramaile izatea Lehendakariordearekin batera.
- g. Lehendakari izaerari datxekion ezein funtzio aurrera eramatea.

14. artikulua. Lehendakariordetza.

1. Lehendakariordetza Herritarren Elkarte baten ordezkariari dagokio, eta bere funtzioen barne daude Lehendakaritzari laguntzea eta berarekin elkarlanean aritzea.

Kontseiluko lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du postua hutsik badago, Lehendakaria ez badago edo gaixorik bada eta, eta Kontseilu honetako beste organoek eskuordetutako funtzioez gain beste hauek beteko ditu.

- a. Batzorde Iraunkor eta Lan-Taldean jarduerak koordinatuko ditu.
 - b. Hiriko Gizarte Kontseiluan Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Kontseiluaren ordezkari izango da.
 - c. Lehendakariarekin batera Kontseiluaren bozeramaile izatea.
2. Lehendakariordetza eta bere ordezkaria Kontseiluaren Osoko Bilkuraren gehiengoaz izendatuak izango dira herritarren elkarte baten ordezkari den Kontseiluko bokalen artean eta hauen proposamenez.
 3. Lehendakariordetza urtero berretsiko da Kontseiluaren Osoko Bilkuran eta pertsona batek gehienez lau urtez hartu ahal izango du.
 4. Lehendakariordetzarako aukeratutako pertsona bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezan bilatuko da.
 5. Posible den heinean, emakumeak eta gizonak tartekatuko dira Lehendakariordetzan.

II. KAPITULUA. KONTSEILUKO BILKURAREN ANTOLAKETA

1. SEKZIOA. Osaera eta ahalmenak

15. artikulua. Bilkuraren osaera.

1. Bilkura da Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza Kontseiluko organo gorena.

2. Kontseilua osatzen dute:

* Lehendakariak.

* Lehendakariordetzak.

* Kontseiluaren Idazkaritzak.

* Bokalak:

a. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza arloan eskumena duen zinegotziak eta **Udalan dauden udal talde bakoitza ordezkatzeko duen pertsona bat.**

* 15. artikuluko 2. ataleko "a" atala aldatu da, Udalbatzak 2015eko abenduaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2016/04/06/e1602152.htm>

b. Lankidetzak eta Hezkuntza arloarekin harremana duten helburu sozial, xede edo jarduerak dituzten Herritarren Elkarte bakoitzeko kide batek, baita Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gipuzkoako Delegaritzako ordezkari bat.

c. Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren 27. Artikuluak dioen moduan, interesatuen zerrendetan ageri direnen artean zozketa bidez aukeratutako lau pertsona fisiko gehienez.

d. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza arloan gizarte-ospe berezia duten pertsona edo kolektiboek, Kontseiluaren Bilkurak hala erabakita.

3. Bilkura osatzen duten gizon eta emakume kopuruetan parekidetasuna sustatuko da.

4. Lehendakariak gonbidatuta, bilkuran parte hartuko dute ere hitza bai baina botorik ez duten honako hauek:

1. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntza arloko Udal teknikariek.

2. Garapenerako Lankidetzaren arloan eskumena duen zinegotzi ordezkariaren aholkulariak.

16. artikulua. Bilkuraren ahalmenak.

Kontseiluko Osoko Bilkuraren eskuduntzak ondorengoak dira:

1. Kontseiluaren jardueraren ildo estrategikoak zehaztu.

2. Kontseiluaren Jardueren urteko plana eta honen memoria ebaluatu eta onartu, baita Batzorde Iraunkorraren eta Lan-Taldean kudeaketa ere.

3. Lehendakariordetzaren eta bere ordezkoren hautaketa.
4. Batzorde Iraunkorra sortzea eta honen osaera zehaztea.
5. Lan-Taldeak osatzea onartzea.
6. Udal Administrazioaren onespina jaso behar duten arloko politiken inguruko proposamen eta txosten ezberdinak aztertu, eztabaidatu eta horien inguruko iritzia eman.
7. Barne Araudia eta beste funtzionamendu-arauak onartu, iradokizun eta aldaketa egokiak proposatuz.
8. Kontseiluan sartu nahi duten bokal berriak onartu, baita jada bertan dauden batzuen irteera ere, Batzorde iraunkorrak aurretik proposatu eta barne-araudiak edo administrazioak erregulatutako beste arauak hala badiote.

2. SEKZIOA. Funtzionamendua

17. artikulua. Bilkura motak.

- a. Ohikoak: urtean lau aldiz gutxienez egingo dira.

Batzorde Iraunkorraren proposamenez, Kontseiluaren urteko lehen bileran zehaztuko da urteko ohiko bilkuren egutegia.

- b. Ohiz-kanpokoak.

Lehendakariak deituta egingo dira, bere kabuz, Kontseiluan parte hartzen duten bokal guztien %50 baino txikiagoa ez den kopuru batek hala eskatuta edo Batzorde Iraunkorraren eskariz.

- c. Premiazkoak:

Lehendakariak hala erabakiz gero edo Kontseiluan parte hartzen duten bokal guztien %50 baino txikiagoa ez den kopuru batek hala eskatuta.

Premiazko bileretara gutxienez 48 ordu lehenago egingo dira deialdiak.

Kontseiluaren Bilkurak gehiago soiluz berretsi beharko du premiaz biltzearen zergatia, eta gai zerrendako lehenengo aztergai moduan agertuko da Bilkurak asuntua presazkotzat jo beharra.

18. artikulua. Bilkuren gai-zerrenda eta deialdia.

Bilkurako kideei ohiko eta ohiz-kanpoko deialdiak dagokien gai-zerrendarekin gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko zaizkie, premiazko bileretara izan ezik, zeintzuk gutxienez 48 ordu lehenago egingo dira deialdiak.

Kontseiluko bokalek Idazkaritzari luzatu ahal izango dizkiote bilkuretako gai-zerrendan sartu nahi dituzten gaiak, eta Batzorde Iraunkorrean aurkeztuko dira oniritzia jaso dezaten. Batzorde Iraunkorrak edo Lehendakariak gaiak proposatu ahal izango dituzte ere. Lehendakariak egoki irizten dituen gaiekin osatuko da gai-zerrenda.

Saio bakoitzari dagokion dokumentazioa Bilkurako kideei helaraziko zaie gai-zerrendarekin batera.

Deialdia bitarteko elektronikoz egitea lehenetsiko da. Posible ez balitz prozedura administratiboari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren edozein bide erabilita egin ahal izango da.

Dokumentazioa udal webgunean egon ahal izango da. Dokumentazioaren eskuragarritasuna eta segurtasuna bermatu beharko dira.

19. artikulua. Bilkuren izaera publikoa.

Bilkurak ez dira publikoak, baina Kontseiluaren Bilkuraren edo Batzorde Iraunkorraren proposamenez, araudi honetako 15.4 artikuluko pertsoez gain, aztertu beharreko gairen batean adituak direlako edo beraien iritzia jaso nahi direlako Zinegotzi Ordezkari, teknikari, erakunde, entitate edo pertsonen parte hartu ahal izango dute.

Batzorde Iraunkorraren proposamenez, Foro Irekia moduan egin ahal izango dira Kontseiluaren Bilkura batzuk edo Bilkurako puntu zehatz batzuen azterketa. Herritarrek hitza bai baina bozka eskubiderik gabe parte hartu ahal izango dute.

3. SEKZIOA. Bilkuren garapena

20. artikulua. Quorum-ak.

Bilkurak egin, eztabaidak garatu eta akordioak hartzeko osoko bilkura balio osoz eratuko da, kide guztien legezko zenbatekoaren erdia bertaratu bada eta, edonola ere, lehendakaritza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak edo horien legezko ordezkioak bertaratu beharko dira. Bilkurak dirauen denbora guztian eutsi beharko zaio quorum horri.

Osoko Bilkura bigarren deialdian eratzeko, nahikoa izango da ordu erdi beranduago kideen herena bertaratzea, betiere Lehendakaria eta Idazkaria edo horien legezko ordezkioak bertan baldin badaude.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira, ordezkorik izanez gero.

21. artikulua. Gai zerrendan jasota ez dauden gaiak.

Baldin eta premiazko arrazoirik balego eta Lehendakariak aurkeztuko balu, bere kabuz nahiz Bilkurako edozein bokalek hala eskatuta, bilkurako gaiak lantzen hasi baino lehen gai zerrendan jasota ez dagoen edozein gai proposatu eta aztertzea bozkatu ahal izango da. Gehiengo osoz erabakiko da gaia aztertzea.

Gaiak bere izaeraren arabera landuko dira: aholku emailea, informazioa eskaintzeko, eztabaidatzeko, aztertzeko edo proposamena egiteko.

Kontseiluak aholkulari izaera du. Ikuspuntu guztiak islatzeko baldintzak sortu behar dira eta iritzi eta proposamenak emateko baldintzak egon behar dira ere. Helburua ez da nahita nahiez kontzientzia bilatzea, aldiz adostasun zabalez modu kolektiboan sortutako adierazpen eta proposamenak bilatuko dira eta gai baten inguruan iritzi ezberdinak baleude islatu beharko lirakeke.

22. artikulua. Bozkatzeko prozedura.

Botoa pertsonala da, eta ezin da eskuordetu, eta bokal titularrak edo bere ordezkioak gauzatuko dute, ordezkorik izanez gero.

Orokorrean, botoa publikoa izango da. Botoa ezkutukoa izango da Bilkuran dauden pertsona gehienek horrela eskatuz gero. Bozka baiezkoa, ezezkoa edo abstentzioa izan daiteke.

Bozka bidezko akordio edo proposamenak gehiengo soilez hartuko dira: gehiengo soila baiezko botoak ezezkoenak baino gehiago direnean gertatzen da.

Gehiengo osoa baiezko botoak Kontseiluko Bilkuraren kide kopuruaren erdia gainditzen dutenean izango da.

Bozketaren emaitza berdinketa bada, bozketa berria egingo da. Berdinketak badirau Lehendakaritzaren botoak erabakiko du.

Gaia eztabaidatzen hasi eta gero kideren batek bilkura utziko balu, dagokion bozketan abstentziotzat joko da.

23. artikulua. Aktak.

Idazkariak bilkura guztien akta egingo du eta honakoak jasoko ditu bertan: Bileran izandakoen izenak, eztabaiden alderdi nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

Bilkuren behin-behineko aktak, bilkura egin eta posible bada egutegiko 20 eguneko epean bidaliko zaizkie Kontseiluko bokalei.

Aktak hurrengo bileran onartuko dira. Hala eta guztiz ere, Idazkariak hartutako erabakiei buruzko ziurtagiriak eman ditzake, akta gero onartu behar bada ere.

Behin-betiko aktak publikoak izango dira eta onespena jaso eta egutegiko 15 egunetik aurrera eskatzen dituenaren esku egongo dira.

4. SEKZIOA. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideen eskubide eta betebeharrak

24. artikulua. Eskubide eta betebeharrak.

Osoko Bilkurako kideek eskubide eta betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Eskubideak:

1.— Udaleko Gobernu eta kudeaketako organo eskudunek Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren eskumeneko edo intereseko gai orotan hartzen dituzten erabaki guztien informazioa eskatu eta jasotzeko eskubidea.

2.— Eguneko Gai Zerrendarako proposamenak egitea.

3.— Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluko Arduradun Teknikoaren eskutik Eguneko Gai Zerrendan sartutako gaiak argituko dituzten aurrekariak, argibideak eta agiriak eskatzea.

4.— Bilkurako eztabaidetan parte hartzea, proposamenak eta galdera-eskaerak egitea.

5.— Boto eskubidea erabiltzea, eta, bidezko denean, beren boto partikularra ematea horretarako arrazoiak azalduz.

6.— Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzako Kontseiluaren barruan eratzen diren lan-taldeetan parte hartzea.

7.— Batzarkide diren aldetik, berez dagokien gainerako zeregin oro garatzea.

2. Betebeharrak:

Era berean, funtzio horiek garatzean behartuta daude:

1.— Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntza Kontseiluaren Araudia eta barne-araudia eta bere gobernu organoen ebazpenak betetzea.

2.— Kontseiluaren helburu eta oinarrien aurkakoak diren jarduera, jarrera edo adierazpenak ez burutzea.

3.— Harreman jarraikorra mantentzea ordezkatzen duten elkarte edo entitateekin Kontseiluan landu diren edo landuko diren gaiei buruz.

4.— Egiten diren bilkuretan erregulartasunez parte hartzea eta ahal den neurrian, ordezkoak bidaltzea saihestea: bilkuretan ez parte hartzea alde aurretik arrazoitu beharko da.

5.— Kontseiluan ordezkatuta dauden pertsonen harremanetarako helbide edo legezko egoera-aldaketen berri ematea.

III. KAPITULUA. IDAZKARITZA

25. artikulua. Idazkaria.

1. Idazkaritza Udal Idazkariari edo honek eskuordetutako pertsonari dagokio: kasu honetan bi hizkuntza ofizialak menperatu beharko ditu.

2. Bere funtzioak honakoak dira:

a. Lehendakaritza eta Lehendakariordetzak eskatutako dagozkion gaietan laguntza ematea.

b. Eguneko Gai-zerrendarako proposamenak jasotzea.

c. Lehendakariaren aginduz bileren deialdiak osatzea eta bidaltzea, bai eta kideentzako zitazioak ere.

d. Kontseiluko bilkuren aktak altxatu eta bertan adostutako akordioen ziurtagiriak igortzea.

e. Kide, ordezkaritza eta partaideen Errolda eguneratua izatea, organo ezberdinena, bai eta sarrera eta irteerenak ere.

f. Idazkari izateari berez dagokion gainerako zeregin oro garatzea.

3. Bere funtzioak aurrera eramateko, Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntza arloan eskumena duen Saileko udal langileen laguntza izango du, non Kontseiluaren Arduradun Teknikoa izendatuko den.

IV. KAPITULUA. BATZORDE IRAUNKORRA

26. artikulua. Batzorde Iraunkorreko osaera eta kidetza.

1. Batzorde Iraunkorra da Bilkuren arteko organo gorena.

Bera arduratzen da Kontseiluaren eguneroko kudeaketaz eta, Bilkura bildua ez delarik, haren zuzendaritza bere gain hartzen du.

Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra honako hauek osatuko dute:

a. Lehendakaritzak: Kontseiluaren lehendakaria.

b. Lehendakariordetzak.

c. Bost bokal gehienez: Hauetariko bat Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gipuzkoako Delegaritzako ordezkaritza bat izango da. Beste lau pertsonak Kontseiluko Osoko Bilkurak hautatutakoak izango dira: edozein bokalek proposatuta, hautaketa Osoko Bilkurak egingo du talde hauetako bokal izatera dutenen artean: Herritarren Elkarteak, Pertsona Fisikoak, Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzaren arloan gizarte-ospe

berezia duten pertsona edo kolektiboak. Batzorde Iraunkorreko bokalen %50 gutxienez Herritarren Elkartetako ordezkariak izango dira.

Pertsona hauen artean emakume eta gizonen kopurua parekidea izatea sustatuko da eta bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten saiaturiko da.

d. Kontseiluko Idazkaria, hitza bai baina bozka eskubiderik gabe parte.

Lehendakaritzak hauek gonbidatu ahal izango ditu hitza bai baina bozka eskubiderik gabe:

— Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza alorreko teknikariak.

— Garapenerako Lankidetzaren arloan eskumena duen zinegotzi ordezkariaren aholkulariak.

— Jorratu beharreko gaiaren araberako ezein pertsona garrantzizkoak.

2. Batzorde Iraunkorreko Bokalak urtero berretsiko dira Kontseiluaren Osoko Bilkuran eta gehienez lau urtez hartu ahal izango dute ardura hori. Ordezkapenak egiteko orduan gizon eta emakumeen kopurueta parekidetasuna lortzen saiaturiko da.

27. artikulua. Funtzioak.

Batzorde Iraunkorrek honako funtzio hauek ditu:

1. Lan-urte bakoitzaren hasieran, Kontseiluaren Urteko Aktibitateen Programa eta egutegi proposamena aurkeztea eta Lan-urte bakoitzaren amaieran haren kudeaketari dagokion Memoria edo akten laburpena aurkeztea Bilkurari, onets ditzan.

2. Kontseiluaren osoko bilkura bakoitzeko eguneko gai-zerrendan gai zehatzak sartzea eskatzea eta Bilkurako gainontzeko bokalek egindako gai proposamenei oniritzia ematea.

3. Lan-taldeak eratzea proposatzea.

4. Ohiz Kanpoko osoko bilkura egin dadin eskatzea.

5. Araudi honen interpretazioan sor daitezkeen gaietan Lehendakaritzari aholku ematea.

6. Garapenerako Lankidetzeta politika eta urteko jarduera-planaren inguruko gaietan Donostiako Udalarekin elkarlanean aritzea, ekimen propioz (Kontseiluko Bilkuran kontrastatuta) edo eskumena duten organoek honela eskatzen badute.

7. Bilkurak eska diezaiokeen ezein txosten ematea, bai eta egoki deritzon neurri eta ebazpen oro hari proposatzea ere.

8. Kontseiluaren Bilkurari Kontseiluak egin dituen proposamenen ibilbide eta bilakaeraren berri ematea.

9. Premia dela eta, hurrengo Osoko Bilkurari itxaron ezin dioten gai guztien ohiz kanpoko azterketa eta izapidea burutu, ondorengo Plenoan kontuak emanez.

10. Dagokion Bilkuran, Batzorde Iraunkorrek bere akordio eta ebazpenen berri emango du.

11. Kontseiluaren ebaluazioa koordinatzeaz arduratuko da eta lehen txostena osatuko du.

12. Bilkurak esleli liezazkiokkeen edo Kontseiluaren beste organoei berariaz esleitu ez zaizkien funtzio oro.

28. artikulua. Funtzionamendua.

Batzorde Iraunkorreko osaketa baliagarria izateko Lehendakariordeak, Idazkariak eta boto eskubideko kideen gutxienez erdiek bildu behar dute.

Urte amaieran Batzorde Iraunkorrek datorren urteko Kontseiluaren Osoko Bilkurako egutegi proposamena egiten duenean Batzorde Iraunkorreko bilkuren egutegia proposatuko du ere, eta Batzorde Iraunkorrek gutxienez bilera bat egin beharko du Kontseiluaren ohiko Bilkura bakoitza ospatu artean.

Urteko lehen bileran egutegi hauek, Kontseiluaren Urteko Aktibitateen Programa proposamena eta Lan-urte bakoitzaren amaieran haren kudeaketari dagokion Memoria aurkeztuko zaizkio Bilkurari, onets ditzan.

Batzorde Iraunkorren Ohiz Kanpo Bilerak Lehendakaritzak hala erabakiz gero egingo dira edo kideen erdiak eskatuz gero.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira, kontzentzuaren alde egingo bada ere. Berdinketa gertatuz gero, Batzorde Iraunkorreko Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

V. KAPITULUA. LAN -TALDEAK

29. artikulua. Lan-Taldeak direla eta.

Aztertze eta lan egiteko organoak dira Lan-Taldeak eta euren zeregina emandako helburuetarako egokiak diren txostenak eta proposamenak sortu eta jarduerak egitea da. Egiten duten guztiaren berri eman beharko diote Batzorde Iraunkorrari eta Osoko Bilkurari. Edonola delarik ere, Lan Taldeen txostenak ez dira lotesleak izango.

Edonola ere, Lehendakariordeak edo berak aukeratutako Batzorde Iraunkorreko kide batek koordinaturik egongo dira.

Osaera eta kideen kopuruak erabaki ondoren, kontseiluko ordezkarietatik parte hartzeko prest daudenek osatuko dituzte.

Lan-Taldeetako kideen artean emakume eta gizonen kopurua parekidea izatea sustatuko da.

Lan-Taldeetako kideek bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten saiaturiko da.

Bertan Kontseiluan parte hartzen duten kideek parte hartu ahal izango dute, eta baita aztertuko den gaian adituak diren pertsonak edo ekarpenak egin ditzaketenak.

VI. KAPITULUA. EBALUAZIOA

30. artikulua. Ebaluazioa.

Ebaluazio jarraitua sustatuko da.

Kontseiluaren bilkuraren saio bakoitzaren amaieran saioaren beraren balorazioa egiteko tarte bat hartuko da.

Bi urtean behin edo eta Kontseiluaren erdiak eskatzen duen unean Kontseiluaren ibilbideari buruzko ebaluazioa antolatuko du Batzorde Iraunkorrak: gutxienez helburu, eginkizun, osaera eta dinamikak aztertuko dira.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honen guztizko edo zatikako aldaketa eta bere indargabetzea Udalbatzaren esku dago, eta Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Kontseiluari aurretik kontsultatua.

Araudi honen interpretazio eta aplikazioek sor ditzaketen zalantzak Lehendakariak argituko ditu Batzorde Iraunkorraren iritzia entzun ondoren, indarrean dagoen araudiaren barnean betiere.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratu da 2008ko otsailaren 26ko osoko bilkuran onartu zen Garapenerako Hezkuntzako Udal Aholku Kontseiluaren araudia.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta 15 egunetara.